

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

USURBILGO UDALA

Hirigintza

*Hiri Antolamenduko Plan Orokorra hasieraz onartzea eta jendaurrean jartzea.*

Plenoak, 2022ko urriaren 13an zera erabaki zuen:

*Lehendabizi:* Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari hasierako onespena ematea.

*Bigarrena:* Usurbilgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra, ingurumen-azterketa estrategikoa eta proiektatutako antolamenduak indarrean dagoena aldatzen duen eremuen mugaketaren laburpen exekutiboa jendaurrean jartzea 2023ko urtarrilaren 31 arte, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, ohiko egunkarietan eta udalaren egoitza elektronikoa iragarkia argitaratuz, interesatuek hala baideritzote dagokien alegazioak aurkeztu ditzaten.

Ingurumen-azterlan estrategikoa ere jendaurrean jartzen da epealdi horretan, interesdunek azter dezaten eta egoki iritzitako alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Halaber, eraginpeko administrazio publikoei eta herritar interesdunei kontsulta egitea, 2023ko urtarrilaren 31 arteko epean HAPOa eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa aztertu ahal izateko, eta egokitzat jotzen dituzten oharra egin ditzaten.

Izapide horiek amaitu ondoren, espedientearen kopia osoa bidaliko zaio ingurumen-organo eskudunari, nahitaezko ingurumen-adierazpen estrategikoa egin dezan.

*Hirugarrena:* Mota guztietako onarpen, baimen eta lizentziak etetea aurreikusitako zehaztapen berriek indarrean dagoen Hirigintza-araubidea aldatzea dakarten eremuetan. Eremuak espedientean daude zehaztuta, G agiriko (Egikaritze Laburpena) 4. atalean. Etete horrek gehienez bi urteko iraupena izango du.

*Laugarrena:* Hasierako onespena jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten, aipatutako eskumen sektorialak dituzten administrazio publikoei.

Usurbil, 2022ko urriaren 17a.—Agurtzane Solaberrieta Mesa, alkatea. (6636)

AYUNTAMIENTO DE USURBIL

Urbanismo

*Aprobación inicial y exposición pública del Plan General de Ordenación Urbana.*

El Pleno en fecha de 13 de octubre de 2022, acordó:

*Primero:* Aprobar inicialmente el Plan General de Ordenación Urbana de Usurbil.

*Segundo:* Someter al trámite de información pública hasta el 31 de enero de 2023 el Plan General de Ordenación Urbana de Usurbil, el estudio ambiental estratégico y el resumen ejecutivo de la delimitación de los ámbitos en los que la ordenación proyectada modifica la vigente, mediante anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en los diarios habituales y en la sede electrónica del Ayuntamiento, a fin de que los interesados puedan presentar las alegaciones que estimen oportunas.

El estudio ambiental estratégico también se somete a información pública durante este periodo para que los interesados puedan examinarlo y presentar las alegaciones y sugerencias que estimen oportunas.

Asimismo, consultar a las administraciones públicas afectadas y al público interesado para que, en el plazo de hasta el 31 de enero de 2023, puedan analizar el PGOU y el Estudio Ambiental Estratégico y formular las observaciones que estimen oportunas.

Una vez finalizados estos trámites, se remitirá copia completa del expediente al órgano ambiental competente para la emisión de la preceptiva declaración ambiental estratégica.

*Tercero:* Suspensión de todo tipo de aprobaciones, autorizaciones y licencias en aquellos ámbitos en los que las nuevas determinaciones previstas supongan una modificación del régimen urbanístico vigente. Los ámbitos se detallan en el expediente en el apartado 4 del documento G (Resumen de Ejecución). Dicha suspensión tendrá una duración máxima de dos años.

*Cuarto:* Notificar la aprobación inicial para su conocimiento e informe a las Administraciones Públicas con competencias sectoriales citadas.

Usurbil, a 17 de octubre de 2022.—La alcaldesa, Agurtzane Solaberrieta Mesa. (6636)